Arizmendi ikastola
arrasate Herri Eskola
Mondragón Andra María Ikastetxea

36. alea
2005

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



1. zikloa

# Gure gorputza

**Gure gorputzak desberdinak dira, batzuk altuagoak gara, beste batzuk bajuagoak, batzuk lodiak, beste batzuk berriz, argalak, morenoak eta zuriagoak ere badaude. Adinean aurrera joan ahala gure gorputza aldatzen doa, neska edo mutila bagara gure gorputzak desberdinak dira.**





*Nuestros cuerpos son diferentes, altos o bajos, gordos o flacos, mas morenos o mas blancos. Cuando vamos creciendo nuestro cuerpo cambia, según el sexo nuestros cuerpos también son diferentes.*

# Gure zentzumenak aztertzen:

**UKIMENARI ESKER** laztan goxoak eman ditzakegu, gure lagunak eta ingurukoak ikutu eta laztandu ahal ditugu gure maitasuna adieraziz.

**Klaseko kide bati laztanak egin eskuan edo besoan eta gero berak zuri egin diezazula.**

### ZER SENTITU DUZU?

**DASTAMENARI ESKER** bereizten ditugu zapore desberdinak. Ahoa oso organo sentibera da eta horren barrua mihia dago.

### ZEREN ZAPOREA GUSTATZEN ZAIZU?

**ENTZUMENARI ESKER** soinu desberdinak bereizten ditugu. Hitz goxoak entzun ahal ditugu eta musika ere bai. Belarriak ez dira soilik belarritakoak eramateko.

**USAIMENARI ESKER** loreen edo janari desberdinen usainak antzematen ditugu. Hau zorte gurea, sudurrarekin egin dezakeguna!

### ZEREN USAINA GUSTATZEN ZAIZU?

**IKUSMENARI ESKER** gure inguruko pertsonak, gauzak, koloreak, paisaiak ezagutu eta bereizten ditugu. Gure begiek inguruan dugun errealitatea hurbiltzen digute. Imaginatu nolakoa izango litzatekeen zure bizitza ikusmenarik gabe.

## ZENTZUMENAK GURE GORPUTZEAN KOKATUZ:











# Gorputz hauetan arropa eta apaingarriak jarriko ditugu

*Vamos a vestir y a adornar a estas personas*





## Zer nolako arropa, koloreak eta apaingarri jarri diogu bakoitzari?, zergatik?

¿Qué ropa colores y adornos has elegido para cada persona?, ¿por qué?

# Gurasoen txokoa



# GURE GORPUTZA



Zaindu, entzun, ezagutu eta maitatu behar dugu.
Tenemos que cuidar, escuchar, conocer y querer NUESTRO CUERPO

## Gure seme-alabekin Zentzumenak lantzeko jolasak

Juegos para trabajar los sentidos con nuestras hijas e hijos

### Ukimena Tacto

Luma batekin jolastuko dugu gorputzeko atal desberdinetan (aurpegia, eskuak, oinak…) laztanak ematen.
Con una pluma vamos a jugar a hacernos caricias en diferentes partes del cuerpo (cara, manos, pies…)

### Dastamena Gusto

Begiak itxita fruta desberdinei kosk egingo diegu eta dastamenaren bitartez zein fruta den asmatu behar dugu.
Con los ojos cerrados vamos a morder cachos de diferentes frutas y tenemos que adivinar qué es.

### Entzumena Oido

Bost minututan isilik egongo gara eta etxean entzuten ditugun soinu guztiak zerrendatuko ditugu. Ea nork harrapatzen duen gehien!
Durante cinco minutos nos quedamos escuchando los sonidos que hay en la casa y lo vamos apuntando, a ver quien oye más.

### Usaimena Olfato

Zoaz hozkailura eta saia zaitez bertan dauden janari guztien usaina aditzen. Egin ezazu begiak itxita eta norbaiten laguntzarekin.
Vete a la nevera y trata de captar los olores que hay. Hazlo con los ojos cerrados y con la ayuda de alguien.

### Idatzi sentitu duzuna

Escribe lo que has sentido

________________________________________

________________________________________

________________________________________

### Ikusmena Vista

IKUSI MAKUSI jolasean. Etxeko gela batean jolastuko dugu eta hor dagoen gauza bat aukeratu behar dugu besteek asmatzeko. Behin aukeratuta besteei *ikusi makusi* esango diegu eta besteek *zer ikusi* erantzungo dute. Orduan aukeratu duzun gauzaren lehenengo letra esan behar duzu"B" hasten den gauzatxo bat (besaulkia), ea asmatzen duten.
Jugando al VEO-VEO

## Zer iruditu zaizu boletin hau?

¿Qué te ha parecido este boletín?

_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

_ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _ _

Koordinatzailea:

Babeslea:

ARRASATEKO UDALA